

**TXOSTENA, PROPOSATZEN DUENA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN
UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZEN HEZKUNTZA-EBALUAZIOAREN ESPARRU
OROKORRA ARAUTZEN DUEN FORU AGINDUARI HASIERA EMATEKO PROZESUA
ARGITARATZEA**

2/2006 Lege Organikoak, 141. artikuluan, xedatzen du ebaluazioa legean araututako hezkuntza-esparru guztietara hedatu eta aplikatuko dela prozesu hauetan: ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza eta haien emaitzak, irakaslan, zuzendaritzaren eginkizuna, ikastetxeen funtzionamendua, ikuskapena eta hezkuntza administrazioak.

Era berean, Legeak 145. artikuluan ezartzen du hezkuntza-administrazioek, beren eskumenen esparruan, ikastetxeen ebaluazio-planak prestatu eta gauzatu ahalko dituztela, haien autoebaluazioa lagunduz eta erraztuz.

Halaber, 146. artikuluan xedatzen duenez, ikastetxeen funtzionamendua hobetze aldera, hezkuntza-administrazioek, beren eskumenen esparruan, zuzendaritza-funtzioa baloratzeko planak prestatzen ahalko dituzte.

Legearen 106. artikulua bidez agintzen da, irakaskuntzaren kalitatea eta irakasleen lana hobetze aldera, hezkuntza-administrazioek irakaskuntza-eginkizuna ebaluatzeko planak prestatuko dituztela. Plan horiek publikoak izan beharko dute, eta balorazioaren helburu eta irizpide zehatzak eta irakasleek eta hezkuntza-komunitateak parte hartzeko modua jasoko dituzte.

Azkenik, 144.1 artikuluan araututako Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen ebaluazio diagnostikoa da Legeak hezkuntza-administrazioei ematen dien beste gomendioetako bat.

Legearen agindu horiek guztiak garatu behar direnez, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko zuzendariak proposatu du foru agindu bat prestatzeko prozedurari hasiera ematea, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen hezkuntza-ebaluazioaren helburu, ezaugarri, eremu, esparru, prozedura, txosten eta erantzukizunei buruzko idazketan jasotako oinarriko alderdiak garatzeko.

Iruñean, 2021eko irailaren 15ean

**HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN
ZERBITZUKO ZUZENDARIA**

Alberto Urrutia Lecumberri

HEZKUNTZAKO KONTSEILARI JAUNA